

## PORTFOLIO

Ikasleak puntu osoarekin (%10) hasiko dira ebaluaketa eta bi puntu kenduko zaizkie ondorengo irizpideen arabera:

1. Aurkezpena:
  - A) Zorrodun karpeta edo eraztun-karpeta mehea zulodun paper-zorroekin.
  - B) Garbitasuna
2. Azala:
  - A) Azal nagusia: izenburua, izen-deiturak eta klasea (beheko eskuin aldean)
  - B) Ebaluaketa bakoitzeko azala
3. Osoa: bi puntu kenduko dira falta den dokumentu bakoitzeko. Bi dokumentu baino gehiago falta badira, 5 puntu kenduko dira. Ia dokumenturik ez badago, 9 puntu galduko dira eta puntu bakarrarekin geratuko da ikaslea, portfolioa esandako epean emateagatik.
4. Dokumentu bakarra zorro bakoitzean. Portfolioak liburu antza izan behar du: bi aldetatik idatzitako orriek bakarrik egon behar dute zorroan, ezingo da beste dokumenturik sartu zorro horretan. Alde bakar batetik idatzitako orriek beste ezaugarri berdineko orriekin batera egon daitezke zorroan.
5. Ordenatua: dokumentuek ebaluazioka eta orden kronologikoan ordenaturik egon behar dute.
6. Irakasleak zuzendutako idazlanek (zikinean) garbira pasatakoen ondoan egon behar dute, izenburu izenburu ondoan, biak batera ikusi eta konparatu ahal izateko moduan, eta ondoren dagokien autoebaluazioa (izatekotan).
7. Irakasleak esandako kontrolak eta hauen autozuzenketak ere (izatekotan) modu berean aurkeztu behar dira, bata bestearen ondoan, begiratu batean konparatu ahal izateko.
8. Irakasleak agindutako dokumentuak soilik egon ahal dira portfolioan, ez apunterik, ez ariketa fotokopiarik, ez beste irakasgaietako dokumenturik, e.a.
9. Dokumentu guztiek osorik/bukatuta egon behar dute.
10. Irakasleak portfolioa klasera ekartzea behin baino gehiagotan eskatu ahalko du ebaluaketa bakoitzean. Ez ekartzekotan, kontuan hartuko da.